


Mezuak, iruzkinak edo publikazioak idatzi aurretik, galdetu zeure buruari:

1

LEGEA URRATZEN ARI NAIZ?


Legea urra dezakegu mehatxu, iraina eta estortsioekin, norbaiti heriotza opatzean, beste pertsonen informazio pribatua ematean eta beste pertsonen elkarrizketa pribatuak berbidaltzean.



2

NORBAIT MINDU DEZAKET?

Gure mezu eta argitalpenek gainontzekoak mindu ditzakete. Pantailaren atzean sentimendudun pertsonak daudela gogoratu behar dugu. Gure ikuspuntua edota desadostasuna hainbat modutan azaldu dezakegu inor mindu gabe.



3

GAIZKI ULERTU DAITEKE?

Idatzizko komunikazioak ez du ahozko komunikazioak ematen digun testuingururik (ahots-tonua, gorputz- hizkera) sortuko. Irakurri mezua bidali aurretik, ziurtatu ondo ulertzen dela eta ez duela gaizki- ulerturik sortzen.


Adi emojiekin! Norberak modu desberdinean uler dezake eta.



4

NIRE AURKA ERABILI DAITEKE?

Bidaltzen dugun guztia (publikoa edo pribatua) betiko geratuko da eta baliteke etorkizunean gure aurka erabiltzea. Bitan pentsa bidali aurretik.



Gauza positiboak idatzi, ongizate olatu bat sortu ezazu